

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martin Zabala Agirre

*Andoain,
Gipuzkoa
(1926-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Garai batean Etxeberrieta izena zuen kalean jaio zen Andoainen bertan (gaur egun Larramendi kalea den horretan). Aita gerra garaian desagertu zitzaion eta seme bakarra, amarekin eta amona batekin hazi zen. Ama bertakoa zuen eta aita Adunakoa. Berak La Salle ikastetxean ikasi zuen eta gero Laborden. Etxeko lehen irratia berak muntatu zuen eta gero saldu ere egin zituen beste batzuk inguruko etxeetan. Handik afizioa sortu eta etxeko tresna elektronikoak saltzeko denda bat jarri zuen Kale Nagusian. Bertatik pasatu ziren Andoaingo lehen plantxa elektrikoak, lehen garbigailuak, lehorgailuak... Bere denbora librean herri-kiroletako epaile ere izan zen Martin, batez ere sega-apustuetan.

Zintak

AND-027

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-07-08
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon

AND-029

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-07-14
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Etxeberrietan aitonaren garaitik

- **Erref:** AND-027/002
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxeberrieta auzoaren sorrerari buruz hitz egiten du: kotoi-fabrikako langileentzat egindako etxeak ziren, eta Martinen etxea izan zen denetan azkena eraiki zena. Ama ere Martinen jaiotetxean jaiotakoa zen. Aitona Amezketatik Andoainera etorritakoa zen.

2. Aitona trenak jo zuen

- **Erref:** AND-027/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Amaren aita trenak harrapatuta hil zen. Amak orduan 8 urte zituen.</p>

Transkripzioa

- Amak'e jakiña, nere ama're honea etorrira, bueno, etxia inda; bea aurrena jaiyo zan han. Onduan bizi zian ta geo nere amak'e suerte txarra izandu zun, aittakin ezin bizi. Aittak, zea ibiltzen zan, zea, fabrikan lanian, [...], fabrikan. Geo enkargatu eo uste det esaten zula gaiña, gauzak arreglatzen ta hola. Ta ordun, zea, suba itteko ta're egurra ta ekarri bihar izaten zuen. Ta mendia jua da egurrakin, ta egur-sortakin badator badator ta trenbidian, trenbidian ixkiñan, trenbide ixkiñan, ta trenan soinuba aittu, trenan soinuba aittu ta bueltatu, "a ver" nundikan zatorren; alde batetik eo bestetik zatorren ta buelta zunian, trenak egurrari jo ta egurrak buruba jo, buruba puxkatu ta hilda geldittu. Ta nere ama geldittu zan aittaik gabe.

- Senarrik gabe.

- Senarrik gabe.

- Alargun.

- Bai. Senarra're, senarrik gabe geldittu zan.

- Hoi, barkatu, hoi zure aittona, zure aittona hil zala, zure aman aitta.

- Nere aman aitta. Ta hua're gazteik holaxe gelditu zan, zea "esto" aittik gabe. Ez dakit zenbat urte zittun, zortzi urte eo uste det zittula.

3. Áncoras kalearen historia

- **Erref:** AND-027/006
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Áncoras izena du Andoaingo kale batek, garai batean aingurak egiten baitziren bertan. Errementeria asko zeuden lehen kale horretan.

4. Jaio baino lehenago, aita desagertu

- **Erref:** AND-027/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Aita Adunakoa zuen, baina Martin jaio baino bi hilabete lehenago desagertu zen. Ez zeukaten heriotza-agiririk; baina, udaletxekoan laguntzaz, ama alarguna zela baieztatzea lortu zuten eta soldadutzatik libratu zen Martin.</p>

Transkripzioa

- Zure ama hemengoa zala, Andoaingoa, esan deu. Ta aitta, berriz, aitta nondik zetorren badakizu?
- Aitta? Aitta Adunakua.
- Adunakua.
- Adunakua. Larnardo, Larnardo Zabala, Zabala Mendizabal. Larnardo Zabala, aitta.
- Aitta esan diazu lehen, ez zenutela ezautu.
- Nik ez nun ezautu. Ni... ni jaio baiño bi-hiru hillebete eo lehenoz zeatu zan.
- Hil in zan o desagertu in zen?
- Desagertu, desagertu. Soldaduxkatikan, soldaduxkatikan nere amai kosta zitzaion baiño in zun lana, batekin ta bestiakin ta zeik ez zakan, "fe de" nola da? "Fe de defunción, defunción", nolabait desagertu zan, baiño Andoaingo aiuntamentuko historiala ta geo asko, zeak, herriko zeak, "esto" erretoriak'e, erretoriak'e esaten ziyoen, alegiya, ezautzen zuela, herriar guztik ezautzen zuela, bataiatu ezkeotikan ezautzen zuela ta hua ta hua ta... Hala gertatu zala, hala gertatu zala, ta behintzat behintzat libratu ziyoten. Geo ya boletin ofiziala egin nahi, ta etorri zan ta aiba "queda desligado de no se qué del servicio militar". Jendeai galdetu ziyoen ta "joe, Martin!". Nik esaten nun, "ni gustoa jungo niñukek soldaduska, ikusteagatikan, munduba pixkat ikusteagatikan", zeatikan hemendikan ez giñan ta ateatzen ta.
- Ez ziñan jun soldaduska?
- Ez.
- Aittan, aitta desagertzia [...]?
- Bai, baiño bai. Ama alarguna zala ta alarguna, baiño alarguna justifikatzeik ez zakan ta ordun ba aiuntamentuak eta zeak eta haik justifikaziyua iten zuen, baiyetz "esto", hala zeola.

5. Gerrako garai latzak

- **Erref:** AND-027/009
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Garai latzak pasatzea tokatu izan zaie: errepublika, gerra... Andoainen 17 gizon fusilatu zituzten, gizon zintzo askoak. Errepublika etorri zenean, apaizak ez zituzten onartzen. Gero, ordea, gerra iritsitakoan, mendekua etorri zen. Gerra bukatu eta egoera normaldu arte urte batzuk pasa ziren.

6. Gizonak fusilatu eta emakumeak umiliatu

- **Erref:** AND-027/011
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Gerran gizonak fusilatu egin zituzten, baina emakume batzuei ilea moztu zieten umiliatzeko. Emakume haietako bati buruz hitz egiten du: nazionalista izateagatik moztu zioten ilea, lagunek salatu zuten. Margaritek zer egiten zuten azaltzen du. Emakume batzuei olio erretxinaduna ematen zieten zigor moduan.

7. Gerra garaiko desfileak Andoainen

- **Erref:** AND-027/012
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:17:11. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Andoainen desfileak egiten ziren nazionaliek herriren bat hartzen zutenean. Egun haietan, etxeetako leihoak paper horiarekin eta gorriarekin estali behar izaten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Hemen herrin itten al zian desfiliak, ba, herri bertan...
- Jode! Hoixe! Herrin bat hartzen zuenian ta gabian, ya, beinga desfiliak. Ta kristalak zea in bihar izaten genittun, paperakin zeatu jarri, papera gorriya ta horiya, gorriya ta horiya kristalak; zea, "esto" zea, kolakin zeatuta ta argiya pixtuta, ikusteko zeak bandera espaiñolak ikusteko. Hoi kontatu al dizue? Ez? Hoi ez dizue kontatu? Joe, "me cauen la leche".

- Banderak eta hola bai, banderak bai baiño kristaletan ta...
- Kristaletan ta, kristaletan. Ta zeatu in bihar e? Igual ez baldin bazenun jartzen, igual, igual etortzen zitzazun.
- Ikurriñaik baldin bazeon etxen batian...
- Ikurriña, joe ikurriña... Joe, ikurriña esaten dezu! Pentsa zazu!

8. Arratoiak kalean eta katua platerean

- **Erref:** AND-027/013
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Aitonak etxea eraiki zuenean, beheko zatian taberna jarri zuten. Taberna hartan katua jaten zuten eta jendeak gustuko izaten zuen. Kaleetan arratoi asko egoten ziren, eta soroetan artoa jatera joaten ziren. Etxe gehienetan zakurrak edo katuak izaten zituzten.

9. Ama sukaldaria eta emagina

- **Erref:** AND-027/014
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:21:49. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Goserik ez zuten pasa. Amak amonarekin eta ahizparekin ikasi zuen sukaldean ibiltzen. Sukaldari ona zenez, hainbat lekutatik deitzen zioten bazkariak prestatzeko. Ama Andoaingo emagina ere bazen.

10. Auto baino tranbia gehiago Andoainen

- **Erref:** AND-027/016
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Errepidean aritzen ziren jolasten umetan. Gerra aurrean auto bakarra eta bi kamioi zeuden Andoainen. Umeek autoari baino beldur gehiago zioten tranbiari. Tranbiaren ibilbideaz eta ordutegiaz hitz egiten du.</p>

11. Marroka jolasten

- **Erref:** AND-027/017
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:32:21. **Bukatu:** 00:34:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Marroka nola jolasten zuten azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Marroka eo esan diazu lehen. Ze joku zan hura?
- Marroka?
- Hoi zer da?
- "A los marros". Hoi zan, hoi izaten zan "esto" itten genun, nola esango dizut nik: hau da kamiyua, ezta?
- Bai.
- Ta hemen kamiyuan paretan kontra hola, itten nun aiba "raya" bat, hola. Kuadro bat, kuadro haundi bat. Eta han eoten giñan, han jartzen giñan hiru hirun kontra eo lau laun kontra. Han jarrita. Ta geo buelta guztin, hola bueltan, zea buelta haundi bat in ta tokik, tokik hola, "Aiba! Zea bat jarri, harriya eo, bat jarri hor! Han beste bat, hor beste bat, eta hor beste bat eta geo. Ta itten zan batek urrutitikan pelota bota, pelota bota ta pelota jo. Ta bestiak han zauden ta pelota aidian harrapatzen baldin bazun, harek irabazi itten zun. Jotzen zunak galdu. Ta haik barrena, ta bestiak kanpoa.
- Ordun barrenian eon behar zan.
- Bai, barrenian eon bihar zenun, irabazteko... batzuk barrenian eon bihar zuen. Jotzen dunak eta haren launak barrenian eon bihar zuen. Bestiak, berriz, pelota botatzen zunak, pelota botatzen zunak hua kanpuan baiño haren hiru launak kanpuan "a ver" bestiak jotzen zun pelota harek harrapatzen zun hola, harrapatzen zun. Ta harrapatzen baldin bazun, haik irabazten zuen. Ta harrapatzen ez bazun, ba, pelota jo zunak korrika joaten zan aurrena aurreneko harria ta handikan beste harria. Ta bestiak pelota hartzen zunian, ba, hua harritik harria zihuan bezela pelota botata jotzen baldin baziyon galdu iten zun.
- Beisbola eo holako tankerako, baiño [...].
- Pelotakin, pelotakin.
- Pelota nolakua zan?
- Pelota normala, pelotik ez baldin [...], askotan itten genun paiñolua korapillua in, pañoluan korapilloakin igual itten gendun ta.
- Hoi marroka.
- "A los marros".

12. La Salle gerra aurretik eta gerra ostean

- **Erref:** AND-027/018
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:34:38. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Pilotan jokatzeko aritzen ziren eskola-etxean. Eskola hartan 6-12 urte bitarteko umeek ikasten zuten. Martin 1934ean hasi zen ikasten La Salle eskolan: han errespetu handia zegoen. Garai hartan, fraideak kalez jantzita joaten ziren, baina gerra bukatutakoan, fraidez jantzita joaten ziren. Gerra bukatutakoan liburuak ere aldatu egin ziren: dotrina eta historia sakratua bakarrik mantendu zituzten euskaraz. Hura txoke handia izan zen umeentzat.</p>

13. Euskaraz ikastetik gaztelaniaz ikastera

- **Erref:** AND-027/019
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:39:09. **Bukatu:** 00:41:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Gerrak iraun zuen bitartean, eskola irekita egon zen. Martinek gogoan ditu gerra aurreko euskarazko liburuak. Gerra aurretik euskaraz ikasten ohitu ziren, eta aldaketa handia izan zen gerra ostean gaztelaniaz ikasi behar izatea. Jende asko kexatu zen.</p>

Transkripzioa

- Ba, bai; gerra zeon bitartean eskola irekiya eendu zan, baiño maixuk eta zauden gizonak, gizonak.
- Ta liburuk, euskerazko liburuk?
- Euskerazko liburuk utzi zituen Historia Sagrada ta dotriña. Beste guztik, Geografia, Aritmetika... Gerra hua sartu baiño lehenetik unikamente kastellanoz ta hoi haundi xamarrek e, gaztiek ez; ya haundi xamarrek, pixka bat aurreatuta zeudenak "Gramática Castellana". Hua gendun kastellanoz, hua ez gendun ikusi beiñ ere euskeraz. Ta izena're bazakaen, "Gramática Castellana".
- Ta zu akordatzen al zea euskerazko liburu haitaz, ze liburu zian eo nolakuak zian euskeraz zianak?
- Bai, goatu bai. Jo, liburuk liburuk ear askuak, ear askuak danak, hoixe.
- Izenik edo akordatzen zea?
- Oain hola, oain hola izen asko ez naiz akordatzen, izenik hola ez naiz akordatzen baiño bai geoztikan nik ikusi're izan ditut baiño haik geo desaparizatzeke modua ein zuen danak liburu haik, batian ta bestian zeatan, ta desaparezitzeke moduba in zuen ta hua dana zeatu in zuen, borratu nahi zuen euskeraz dana borratu nahi zuen.
- Ta La Sallen euskeraz ikasi zenuen noizbait?
- Bai.
- Gerra aurre hartan bai euskeraz ikasten?
- Bai, bai; euskeraz ikasten nun, euskeraz ikasten nun. Aritmetika ta hoiek danak, Geometria ta hoiek danak euskeraz zeaten genitun.
- Euskaldunak zian fraile guztik?
- Euskaldunak, bai, erderaz'e bai baiño ba bai, erderaz'e iten zuen baiño

euskeraz'e bai. Gauz asko zea..., handixogoiri zea ya erderaz'e, jakiña, lehen esan dizutena zea gramatika ta geo sartzen giñanian zeakin geografiakin'e, geografakin'e sartzen giñanian'e ya erderaz'e bastante zeatzen zuen, baiño euskerazko geografia [giñun], bai.

- Ta ordun kanbiyo hoi hamaika-hamabi urtetan eo dena erderaz?
- Dena erderaz, bai. Ta mutill asko gelditu zian e, mutil zea hola basarritar jende ta zea ta hola zea ezin zeatuiketa jota kortatuta zea bere martxa ikasteko martxa zeamakiyena ya zea moztuta.

14. Euskaraz hitz egiteko lotsa

- **Erref:** AND-027/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Baserrikoei gehixeago kostatzen zitzaizen gaztelaniaz moldatzea. Gaztetan ez zuten ohiturarik lagunartean erdaraz hitz egiteko. Baina garai hartan erdaraz hitz egitea kategoriaren seinale zen; nesken artean hika hitz egitea lotsagarria zen.</p>

Transkripzioa

- Baserrikoai gehio kostatzen al zitzaizen?
- Nik uste det baietz, nik uste det, nik uste det gu kalia eta gehiyo zeatzen giñala, zea, hola erderakin beti beti baten bat izaten zan ba, ta gehiyo zeatzen genula uste det.
- Ta zuk gaztetan ba al zenun ohitturikan erderaz hitz eitteko, lagun artian?
- Ez, ez. Ni, guk esaten deu gaiña, nere edadekuak izango gea, izango giñan oain dala, oain dala hogeita hamar, oain dala berrogei urte izango giñan euskeraz erabat, kuadrilla guztiyak euskeraz, beti euskeraz iten genula, beti.
- Ta ba al zan kalia hola erderaz hitz ein nahiago, nahio zunikan edo? Erderaz hitz eittia hobia balitz bezela?
- Jode, kategoriya, particularmente emakume txoru hoik, "esas chocholiñas". Haik hasi zian ya erderaz ta hola, zea... Nere andriak, esaten dizuten bezela, hika. Baten bati esan, jolines! Hoi zea zan "una blasfemia" esaten zuen bezela.
- Hika hitz eittea?
- Hika hitz ein neskei ta euskeraz hitz ein, ez, ez. Erderaz, erderaz.
- Hura hobia?
- Bai, "señorita de postín." Nik euskeraz; "de castellano"..., erderaz, "castellano".

15. La Salletik Labordera berehala

- **Erref:** AND-027/021
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:46:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

1941ean La Salle eskola utzi zuen, eta handik bi astera lanean hasi zen Laborden. Lanbidea pixkanaka ikasi zuen.

16. Tornulari izateko gogoa

- **Erref:** AND-027/022
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:46:11. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Laneko gizon batek aholku ona eman zion: kamioia erosteko. Behin laneko arduradunari tornuan lan egiteko eskatu zion, eta hantxe jarri zuten. Tornularia izan zen 2-3 urtean eta ikasketa onak zituen, ofizial izan zen.

17. Irratiak muntatzen ikasteko ikastaroa

- **Erref:** AND-027/023
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:50:58. **Bukatu:** 00:55:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Jornala amari ematen zion, baina aisialdian gero eta behar gehiago zituen. Horregatik, irratia buruzko ikastaro bat egitea bururatu zitzaion; nola ikasi zuen azaltzen du. Lehenengo irratia egin zuenean, proba egin zuen, eta Radio Pirenaica harrapatu zuten.</p>

18. Irrati bat zozkatu, bestea egiteko

- **Erref:** AND-027/024
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:55:17. **Bukatu:** 01:00:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Etxean bere lehenengo irratia muntatu eta ondo funtzionatzen zuela ikusi zuenean, Donostiara eraman zuen doitzeko. Han esan zioten zer zuzendu

behar zuen hurrengo batean irratia egitean. Orduan, irrati zaharra zozketan ateratzea bururatu zitzaion, hortik lortzen zuen diruarekin beste irrati bat egiteko. Azkenean, jostun batzuei tokatu zitzaion zozketako irratia. Zozketa hartatik lortutako diruarekin, beste irrati bat egiteko behar zuen materiala erosi ahal izan zuen Martinek. Irrati hura urte askoan eduki zuten etxean.

19. Irratiak saltzen hasi eta etxetresna elektrikoen denda jarri

- **Erref:** AND-027/026
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:01:09. **Bukatu:** 01:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Irratiak saltzen hasi zen eta andregaiak ere laguntzen zion. Garai hartan, irrati-nobelak oso modan zeuden eta horri esker irrati asko saldu ahal izan zituen. Azkenean, etxetresna elektrikoen denda jartzea erabaki zuen.</p>

Transkripzioa

- Geo saltzen nitun ta ematen ziaten, "un tanto por ciento", ya ordun geo zea andregaia eo ya bastante zeatuta ta honek beak'e laundu ziten zeatzen, andriak. Han bee ingurun ta hola ta.

- Radiyuak saltzen?

- Bai, andriak esan "aizue, radiyua nahi det". Lehen esan dizuetena sekulako zea bazan ordun nobelakin eta, atsaldian, zea hiruretan jendia hasi [huan] ta jende asko zea, hemen radiyua baldin banakan aldemeneko andria honea radiyua aitzea. Horrek "ya" ikusten zitun ta "aizan, zertako jun behar den horrena radiyua aitzea?" "radiyua nei zeak Martinek, nobiyuak saltzen dixkin radiyuak ta harek ekarriko din radiyua. Ta gaiñea, igual emango din zea, esto, sei hillabitian patzeko igual emango din sei hillabete". "Bai". "Ba bai, ezer zeatu gabe".

- Radiyo pillu salduko zenuen ordun?

- Jode, ikearri saldu, asko e, asko.

- Ordun "zinea juteko ta're?

- Joe, ordun zinema, ordun joe ordun nitzan "el más rico del pueblo" esaten dan bezela, jode... (barre).

- Ta hartatik hasi ta geo elektrizista?

- Hortik hasita elektrizidadia. Geo jakiña, gauza zeatzen zijuan, eboluzionatzen, ta ni [...] etxetik etxea. Ta denda jarri behar dit, ta denda jarri. Ta denda jarri elektrodomestikuak. Ordun ez zeon, elektrodomestikoik ez zeon, baiño plantxa elektrikuak bakizu, plantxa elektrikuak zea plantxak zeak izaten zian berotu bihar zenunak txapan gaiñian. Geo elektrikuak, plantxa elektrikuak, hau dala hua dala, bonbillak, radiyuak, radiyuak eskaparaten ta hola.

20. Dendan garbigailuak saltzen hasi zenekoa

- **Erref:** AND-027/028
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:04:16. **Bukatu:** 01:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Dendan garbigailuak saltzen hasi zen: Otsein enpresak egiten zituen garbigailu haiek. Lehenengo garbigailuak nola saldu zituen azaltzen du. Garbigailuetako teknologia pixkanaka hobetzen joan zen.</p>

21. Hozkailuak saltzen lehenengoa Andoainen

- **Erref:** AND-027/029
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:07:27. **Bukatu:** 01:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>1962an hozkailuak iritsi ziren. Martinek haiek saltzeko erabakia hartu zuenean, enpresak ikastaro bat egiteko eskatu zion, hozkailu haiek konpontzen ikas zezan. Hozkailuak saltzen hasi zenean, negozio handia egin zuen, Andoainen hozkailuak saltzen zituen lehenengoa izan baitzen.</p>

22. 1965ean telebistak barra-barra saltzen

- **Erref:** AND-027/031
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:12:40. **Bukatu:** 01:14:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Erretiratu arte eduki izan du etxetresna elektrikoen denda. Denda baino lehenago, etxe hartan zineak zeuden. 1963-1964 inguruan telebista iritsi zen, baina leku guztietan ez zen ondo harrapatzen seinalea. 1965en, ordea, Andoainen errepikagailua jarri zuten, eta telebistak barra-barra saldu zituen orduan Martinek dendan.</p>

Transkripzioa

- Denboa askuan euki zendun denda?
- Nik erretiratu arte ta oain seme-alabak daude, oain seme-alabak seizen due.
- Ze kaletan zenun denda?
- Hemen Calle Mayorrian, han aurrin, Calle Mayorrian, "Calle Mayor treinta tres". Ta nik denda jarri nun, denda jarri nun, aurretikan zea zan, zinia, Cine Iparragirre, ta frakasatu in zun ta hasarratu in zian. Etxea [bota] zuen, zinea ere bota zuen ta geo etxia in zuen. Ama, bai. Hamasei bizitzako etxia in zuen, hamasei bizitza, geo etxia in zuen ta behean, bajuba, bajuba ikearriya bajuba ta, jo... Aurrena ez, biarren denda jarri genun , biarren denda jarri genuna. Hua're txikiya gelditzen, alegiya, aurrenien ez

zeukazun ezerre, baiño geo frigorifikuak, geo zeak, geo labiak, dana; telebisiyua dala... Telebisiyua're ya hasi zan hemen sesenta y tres, sesenta y cuatruan hasi zan hemen, ez zan ikusten ta zeatikan, esto..., zeatikan ikusi behar zan Bilbautikan, Bilbaoko zeakin "canal cuatro" handikan ta. Toki bat eo beste izaten zan ikusten zuna baiño... Sin embargo kostaldian, Donostia aldian ta ikusten zan, nunbaite seiñalia itsaso aldetik etortzen zan, baiño hemen menditan ta, mendi tartian, mendik-eta [...] iten zuen, ta geo sesenta y cincuan Andoaiañen repetidora jarri zuen. Ta repetidora jarri zuenian, joe!, telebisiyuak "como churros", telebisiyuak saltzen, joe...!

23. Irrati-nobelak eta 'Euskal Telebista'

- **Erref:** AND-027/032
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:14:39. **Bukatu:** 01:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Irrati-nobelak Radio San Sebastiánen entzuten zituzten. Jendeak asko jarraitzen zituen irrati-nobela haiek. Denak gaztelaniaz izaten ziren. Euskal Telebista jarri zutenean, Martinen amak barre izugarriak egin zituen hango programak ikusten.</p>

Transkripzioa

- Radiyuan esan dezu, irratin nobelak?
- Bai.
- Aitze ziala ta, ze ze kanal zian eo, zein zian?
- Radio San Sebastián, Radio San Sebastiánek zitun bi emisora eo hiru zittun, ta geo beste bat'e bazan, zea Madrikua eo zea ta, ta haitan. Batian nobela bat, bestian..., ta jendia ba al dakizu nola nola eoten zan radiyuan, zea nobela hua zeatzen, "Ana Rosa" ta ez dakit zer ta badakit zer. Bueno, bueno! Sekulako... Nei ya ahaztu zaizkit izenak baiño-baiño ba al dakizu nola eoten zian?
- Euskeraz zerbait izaten al zan?
- Ez, ezta ezer'e. Euskal Telebista hasi arte ez.
- Ezta bertson batzuk edo?
- Ezer ez, ezer ez zuen iten. Euskera ez zuen... Geo zeatu zuenian, Euskal Telebista jarri zuenian aurreneko... Gue amak haik parrak in zittun gue amak! Joe... Haik parrak in zittun. Euskal Telebista jarri zuenian aurreneko zeatu zuen, ta aiba, zea hitz bat zaldikin, zaldi zea zakan kuadro zaldi kuadrak, ta mutilla, morroiya eo, t mutilla morroiya eo beltza, beltz-beltza ta hua euskeraz hitz eiten zeai nausiai. Gue amak: "Motel, motel hoi ez dek posible, hoi beidaiyok ze beltza dan, horrek euskeraz nundikan jakingo dik ba euskera...". (Barre). Gure, nere amak, nere amak "hua zea, euskeraz, hoi beltza-beltza dek eta horrek nola jakingo dik ba euskeraz, nundikan jakingo dik euskeraz, hoi ez dek posible, motel!".

24. Euskara momentu eta leku bakoitzean

- **Erref:** AND-027/035

- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:19:12. **Bukatu:** 01:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gaztetan beti euskaraz egiten zuten lagunartean, hika hain zuzen ere. Berorika gutxi erabiltzen zuten, maila handiko gizonekin bakarrik. Euskara berdina da Tolosatik hasita Donostia aldera. Goierri aldean desberdindu egiten da euskara. Azpeitia eta Zarautz aldean ere euskara desberdindu egiten da.</p>

Transkripzioa

- Ta euskerakin seituz, zuek gaztetan beti euskeraz hitz eiten zenuen. Zuen artean hika ta hitz egiten zenuen?
- Bai, oain'e hika.
- Ta berorrika norbaitekin?
- Bai, baiño gutxi, gutxi. Berorrika ya zea bihar zun, oso oso ze haundiya; apaiza eo zea eo oso zea haundiya behar zun, bai. Oseake nibel haundiko gizona eo behar zun.
- Hemendikan kanpoa, Andoaindik kanpoa ateatzen zeanian, euskera non hasten da kanbiatzen, lehen aitu gea pixka bat hizketan baiño, hemen jasota gelditzeko. Hemendikan Tolosa aldea eo Donosti aldea eo, nola, non hasten da kanbiatzen?
- Esaten dizut, hemendikan Donostia Tolosa artian guk ez dakau igua-igual-igual zeatzen deu nahiz Astiasun nahiz zean igual-igual, berdin-berdin [jarduten] deu. Akaso, izango da batian larunbatan partez zapatua esango duela? Baiño hoi ya bakiu, baiño zea, baiño igual-igual zeatzen deu.
- Handikan aurea ya edo, Azpeiti edo Goierri edo?
- Goierri ya diferencia da, diferente esaten da, diferencia, dejia ta dana.
- Bukaerak eta?
- Bai. Ta bukaera. Nik esaten det 'aitta' ta haik esaten due 'aitte'. Ta 'ama', haik esaten due 'ame'.
- Azpeiti ta kostalde hortan?
- Kostalde hortan ta ere, behin Zarautzen, Zarautzen sartzean ya haik Zarautzen esatia, haik esango due, haik oaingo berriyahobeto dakie. Badakizu turismua udan, "pueblo turístico".
- Ta zuk ezautzen dituzun euskera diferente hoikin, polittena, onena eo garbina?
- Garbina, aizu, ni honekin ohittuba nao ta neetzako hau. Oain, bixkaitar batek eo zea han zea, nola esango nizuke, Motrikoar, mutrikotar bat haik ohituta, haiena izango da onena baiño; baiño Motriko ta Zumaia etorri ta nik Zumaiakoa nahiago det Motrikokoa baiño.

25. Herri-kiroletako epaile

- **Erref:** AND-029/004
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

25 urte inguru zituela herri-kiroletako epaile moduan nola hasi zen kontatzen du. Segapustuetako gorabeherak.

26. Kirol-apustuak eta txapelketak

- **Erref:** AND-029/005
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Lehen, kirol-apustu asko egiten zen. Gero hasi ziren txapelketak egiten. Segalari txapelketak.

27. Segalariak eta apustuak

- **Erref:** AND-029/006
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Segalarien arteko apustuak. Bi orduko edo ordubeteko lanak (belarraren arabera). Segalari batzuk apustu luzeagoak nahiago izaten zituzten; beste batzuk, berriz, motzak. Partzelak neurtu eta zozketak egin behar izaten ziren. Aipatutako segalariak: Tapia, Paskualsoro, Ibiya...

28. Segapustuetako gorabeherak

- **Erref:** AND-029/007
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Segapustua: bi lagun elkarren kontra, belar saila zeinek lehenago ebaki. Hernion jokaturako sona handiko apustu bat aipatzen du: Polipaso eta asteasuar baten kontrakoa. Polipasoren alde zegoen dirua, baina beste segalariak irabazi zuen. Apustuetan, "gauza zikina beti nonbaitetik ateratzen zen". Polipasori ondoeza emateko zerbait eman ziotenaren susmoa. Horregatik, apustuetan epaile-begiraleak jartzen hasi ziren.

29. Sega-apustuetako epaileen eginkizunak

- **Erref:** AND-029/008
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Sega-apustuetako epaileen eginkizunari buruzko azalpenak. Segalari bakoitzak sei lagun izaten zituen belarra biltzeko. Belar bilketarako jakineko denbora izaten zen. Denbora horretan bildu gabe geratzen zen belarra ez zen pisatzen. Epaileak belarra nola biltzen zuten zaintzen egoten ziren: belarrerekin batera lurrik-eta jaso ez zezaten. Belarra pisatzerako garaian, mozten zuen segalariaren aldeko bat, kontrakoaren taldeko bat eta epailea egoten ziren. Apustuetako diru kontuak.

30. Sega-apustuetako belar-soroea

- **Erref:** AND-029/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroea

Laburpena:

Sega-apustuen ondoren belar-soroea nola geratzen zen: toki batzuetan belarra moztu gabe. Txakelpetak hasi zirenean, azkarrena mozten zuenari eta karga gehiena biltzen zuenari saria emateaz gain, belarra txukunena mozten zuenari ere saria ematen hasi ziren.

31. Belarra moztea

- **Erref:** AND-029/010
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:14:56. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroea

Laburpena:

Baserrira joaten zenean, segan aritzen zen. Baserrian bizi ziren senideekin harreman ona zuen. Belarra moztea: batek belarra mozten zuen, eta besteak eskuarearekin bildu eta gurdian edo astoan kartzen zuen belarra.

32. Aizkora-apustuak

- **Erref:** AND-029/012
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:16:07. **Bukatu:** 00:18:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aizkora-apustuetan ere epaile lanetan ibilia da. Aizkora-apustuetako gorabeherak: enborra aukeratzea, mozte kontuak...

33. Enborren neurriak

- **Erref:** AND-029/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aizkora-apustuetako enborren neurria ontzatan adierazten da. Martinek aipatutako neurriak: 36 ontza, 45 ontza, 54 ontza (kana-erdia), 60 ontza, 70 ontza eta kanako enborra (108 ontzakoa).

34. Arriya eta Kortaren arteko neurketa

- **Erref:** AND-029/014
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:19:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Gerra ondorenean Kortak eta Arriyak Donostian jokatu zuten aizkora-apustuaz hitz egiten du. Egin beharreko lana: 30 enbor 36 ontzakoa eta 6 kana-erdiko moztea.

35. 'Luxia' eta Garziaren arteko aizkora-apustua

- **Erref:** AND-029/015
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:19:37. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

'Luxia' eta Martin Garziarena aizkolarien arteko apustuaz hitz egiten du. Donostiako zezen-plazan jokatu zen apustua; zezen-plaza goraino bete zen. 'Luxia'k irabazi zuen erronka. 'Luxia'k Eibarko Iturrino izan zuen erakustaile; Garziarenak, berriz, 'Armalo' aizkolari leitzarra. Garziarenak neurketari buelta ez ziola emango ikustean, 'Armalo'k alde egin zuen.

36. Latasa eta beste aizkolari batzuk

- **Erref:** AND-029/016

- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Hainbat aizkolari aipatzen ditu: Perurena (gero harri-jasotzen hasi zen), Astibia, Baleztena, Latasa... Latasak egurrari kortea emateko modua aldatu zuela dio Martinek.

37. Aizkolariaren erakustailea

- **Erref:** AND-029/017
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:24:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aizkora-apustuetan, erakustailea egon ohi da, aizkolariari laguntzeko. Aizkorarekin non jo aholkatzen dio aizkolariari.

38. Ostolaza, Urtain eta Endañetarekin epaile

- **Erref:** AND-029/019
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:29:14. **Bukatu:** 00:29:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Harri-jasotze kontuak. Martin zein aizkolarirekin ibili den epaile lanetan: Ostolaza, Urtain, Endañeta...

39. Epailletza

- **Erref:** AND-029/020
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:29:31. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Sega-apustu bati buruzko kontakizuna. Martin epaile zela, Endañetaren anaiarekin belarra biltzerako garaian izandako gorabehera. Epailletza ez da lan erraza.

40. Sokatira

- **Erref:** AND-029/021
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Sokatiran gutxitan egin ditu epaile lanak. Sokatiran ez ziren apustuak izaten, txapelketak baizik. Sokatira talde batean zortzi lagun aritzen ziren tiratzen. Pisu kontuak.

41. Lokotx-apustua eta korrika

- **Erref:** AND-029/022
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:33:36. **Bukatu:** 00:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Herriko festetan lokotx-apustuan ibiltzen zen gaztetan. Korrika egitea gustatzen zitzaion. Donostiara joaten ziren entrenatzera.

42. Irizar eta 'Irutxinberri' korrikalariak

- **Erref:** AND-029/023
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:35:58. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Martinen gazte garaiko korrikalari ezagunak: Irizar, 'Irutxinberri'... Irizarren lasterketa-apustuei buruzko kontuak.

43. Lasto-altxatze probako epaile, iparraldean

- **Erref:** AND-029/025
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Lasto-altxatzea eta txingak herriko festetako probak izaten ziren. Lasto-altxatzea iparraldetik etorri zela dio Martinek. Urte batean, lasto-altxatze proba batzuetarako epaile eraman zituzten sei lagun Baionara eta Donibane Lohitzunera. Orduan ikusi omen zuen aurreneko aldiz proba hori.

44. Amak futbolerako afizioa

- **Erref:** AND-029/027
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:41:04. **Bukatu:** 00:42:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Martinen amak futbolerako afizio handia zuen gaztetatik. Ez zuen futboleant jokatzeko, baina partidak ikustea asko gustatzen zitzaion. Gazte denboran, etxe aurrean zuen futbol-zelaia eta handik sortu zitzaion zaletasuna. Pilota ere jarraitzen omen zuen.

45. Bolatokia eta taberna

- **Erref:** AND-029/030
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:44:04. **Bukatu:** 00:46:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Martinen etxetik gertu taberna bat zegoen, eta haren ondoan bolatokia. Tabernan dolarea ere bazuten, eta sagardoa izaten zen sagardo denboran. Tabernatik porroia hartzen zuten, eta bolatokian jotzen zuten hura nork pagatuko.

46. Idi-apustuak

- **Erref:** AND-029/031
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:46:04. **Bukatu:** 00:48:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Andoaingo idi-apustuatarako plaza noiz egin zuten aipatzen du. Lehen, idiak mendi lanerako eta garraiorako erabiltzen ziren. Gero hasi ziren idiak apustuatarako prestatzen.

47. Idiak apusturako entrenatu

- **Erref:** AND-029/032
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:48:41. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Apustuatarako idiak nola prestatzen zituzten azaltzen du. Jateko, pentsua.

48. Idi-apustuatarako plaza

- **Erref:** AND-029/033
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Andoaingo idi-apustuatarako plazak zenbat neurtzen zuen. Plazako lurra, erreka harria. Idiek egindako distantzia plaza, zinta eta zentimetrotan neurtzen da.

49. Idi-apustueta harriak

- **Erref:** AND-029/034
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:52:49. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idi-apustueta harrien pisuaz hitz egiten du. Andoainen ba omen ziren hiru harri.

50. Zaldi-apustuak

- **Erref:** AND-029/035
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Zaldi-apustuak egiten noiz hasi ziren. Zaldiek, banaka izanda, idiek baino harri txikiagoak tiratzen zituzten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com